Animalia etika gizartean

Ikasgeletan bidegurutze teorikoei eta aplikazio praktikoei buruz hausnartzen.

Eka. 30 - Uzt. 01 2025

Kod. G12-25

Mod.:
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa
2025

Jarduera mota
Uda Ikastaroa

Data
Eka. 30 - Uzt. 01 2025

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Euskara Gaztelera

Balio akademikoa
20 ordu

Webgunea
http://www.animaliaikasketakritikoak.eus/formakuntza/

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Gaur egun ezinbestekoa da gizakiontzat klima-larrialditik eratorritako arazoei aurre egiteko mundu mailan aritzea. Ezberdintasun estruktural eta sozioekonomikoak areagotu ahala pentsamolde berriak azaleratzen ari dira, gizakiak gainerako izaki guztien gainetik jartzen dituen antropozentrismotik harago. Pentsamolde horien artean, beste animaliekin ditugun harremanen hausnarketa nabarmentzen da; izan ere, tradizionalki ondasuntzat edota gure menpeko izakitzat jo izan ditugu. Aldiz, aipatutako joera berritzaileek espezieen arteko berdintasun moralean oinarritutako harremanak sortzeko beharra ikusten dute. Helburu horrekin, mundu mailako ikasketa kritikoen abangoardian den Animalia Ikasketa Kritikoak hausnarketa ez antropozentristak lantzen ditu hainbat esparrutan: akademian, justizia sozialeko aktibismoetan, ikerketan, erakundeetan, profesionalen artean, eta gizartean, oro har.

Uda Ikastaro honek animalia etikarekin lotutako alderdiak diziplina anitzeko ikuspegitik eztabaidatu eta hausnartzeko aukera ematen du. Helburu horrekin, hainbat aurkezpen, mahai-inguru eta tailer egingo dira. Hauek guztiak ikasketa esparru ezberdinetakoak izan arren, elkarren osagarri dira gizarte inklusiboagoa sortzeko.

Lehenik eta behin, guztira ordu eta erdiko hiru hitzaldi proposatu dira. Horietako lehenak ikuspuntu historiko eta filosofikoa eskainiko du animaliekiko ikuskerak historian zehar izan duen bilakaera ulertzeko. Ondoren, Critical Animal & Media Studies alorretik, diskurtso mediatiko eta publizitarioetan animaliek izaten duten diskriminazioari buruz hausnartuko da. Azken hitzaldian, gizaki ez diren animalien irudikapen artistikoari buruz arituko gara; zehazki, zine dokumental animalistari buruz. Horrela, artearen garrantzia nabarituko da bai animaliaren irudiaren hedapenean, bai animalien eskubideen aldeko borrokan.

Bigarrenik, hiru mahai-inguru antolatu dira. Lehenengoan, Animalia Ikasketa Kritikoen eta beste zenbait esparruren arteko harremana landuko da, post-antropozentrismoa ardatz. Bigarrenean, espezismoaren eta beste zapalkuntza mota batzuen arteko harreman eta bidegurutzeak aztertuko dira. Ikastaroari amaiera emateko, zuzenbideko profesionalek animaliek arlo juridikoan duten presentzia eta dituzten eskubideak jorratuko dituzte, egungo egoeraren azalpena praktika eta teoriarekin lotuz.

Azkenik, hausnarketari eta formakuntzari garrantzi handiagoa emateko, bi tailer praktiko programatu dira. Alde batetik, sormenezko idazketari buruzko teknikak landuko ditu lehenak, antropozentrismotik haragoko ikuspegiak irakasteko metodo gisa. Bestetik, *Aula Animal*ek eskainiko du bigarren tailerra, eta irakasleak zein ikasleak animalia etika aintzat hartzen duten irakaskuntza tekniketan trebatzea izango du helburu.

Hala, ikastaro honek gaurkotasun eta garrantzi handiko gaia den animalia etikari buruzko diziplinarteko gune bat sortu nahi du eztabaidarako eta ikasketarako. Programazioaren diseinuan, ezagutzak, hausnarketak eta praktikak trukatzea helburu duten jarduerak lehenetsi dira, eta hezkuntzak eta arlo profesionalak gizarte justuago bat sortzeko garaian duten garrantzia ere azpimarratu nahi da.

Helburuak

Globalizazioak eta klima-larrialdiak eragindako eta pairatzen ditugun ondorioak kontuan hartuta, planetarekiko dugun erantzukizun partekatuaz eztabaidatzea, beste izaki bizidunekiko dugun erantzukizunez eta harremanez modu kritikoan hausnartzeko.

Animalia Ikasketa Kritikoek ikerketa esparru mugakideekin komunean dituzten ezaugarriak identifikatzea diziplinartekotasuna sustatzeko, antropozentrismoaren mitoa deseraikitzen laguntzen duten hainbat ikuspuntu teoriko bilduz eta hedatuz.

Irakasleei zuzendutako formakuntza eskaintzea, hezkuntzaren bitartez animalia etikari buruzko hausnarketak bultzatzeko tresna eta baliabide erabilgarriak irakatsiz.

UPV/EHUn loratzen ari den Animalia Ikasketa Kritikoen esparrua garatzea, Euskal Autonomia Erkidego mailan eta Estatu mailan sareak sortze aldera.

Lankidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Programa

2025-06-30

10:30 - 10:45 Erregistroa / Registro

10:45 - 11:00 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Leire Morrás Aranoa | Irakasle laguntzaile doktorea (UPV/EHU), AIK taldeko zuzendarikidea

---

11:00 - 12:00 “Representaciones audiovisuales de animales“

Ética animal y documentales contemporáneos

Claudia Alonso Recarte | Irakasle titularra (Universitat de València), CULIVIAN ikerketa taldearen fundatzailea

---

12:00 - 12:30 Atsedena

12:30 - 14:00 Mahai ingurua: “Postantropozentrismoa: Animalia Ikasketa Kritikoak diziplina mugakideetatik“

Ane Belen Ruiz Lejarcegui | Ikerlari doktoregaia (UPV/EHU), REWESTeko kidea, AIK taldeko zuzendarikidea (Moderatzailea)
Amaya Fernández Menicucci | Irakasle agregatua (UPV/EHU), REWESTeko kidea
Naiara Berganzo-Besga | Ordezko irakaslea eta ikerlari doktoregaia (UPV/EHU), REWESTeko kidea
Andoni Cossio Garrido | Irakasle laguntzaile doktorea (UPV/EHU), REWESTeko kidea, ikertzaile kidea (University of Glasgow)

14:00 - 15:30 Atsedena

15:30 - 16:30 “Animaliak antzinako Grezian“

filosofia eta errepresentazioak

Leire Morrás Aranoa | UPV/EHU

16:30 - 18:00 “TAILERRA: Antropozentrismoa nola saihestu literaturan eta idazmen kreatiboan“

Irati Jiménez | Ikerlari doktoregaia (UPV/EHU), AIK taldeko zuzendarikidea

---

18:00 - 18:30 Mikroipuin antiespezistak: lehiaketaren sari banaketa

---

2025-07-01

10:30 - 11:30 “Animalien irudikapena komunikabideetan:“

pertsuasio-estrategiak, diskurtsoak eta espezismoa

Olatz Aranceta Reboredo | Ikerlari doktoregaia (UPF), UPF-Centre for Animal Ethics, AIK taldeko zuzendarikidea

---

11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:30	Mahai ingurua: “Relaciones y encrucijadas entre el especismo y otras dinámicas de opresión“ **Irene Barañano** | Ikerlari doktoregaia (UPV/EHU), AIK taldeko zuzendarikidea (Moderatzailea) **Laura Fernández Aguilera** | Investigadora postdoctoral (UB), UPF-Centre for Animal Ethics. **Lamia Filali-Mouncef Lazkano** | Ikertzaile doktoregaia (UPV/EHU) **Itxi Guerra** | Ikertzaile independientea **Frasco Fernández** | Ikertzaile independientea
15:30 - 17:00	“TALLER: Ética animal en la enseñanza:“ recursos y aplicaciones prácticas **Pilar Badía González** | Irakaslea eta aktibista, AulaAnimal
17:00 - 18:30	Mahai ingurua: “Derecho y ética animal:“ **María González Lacabex** | Abokatua, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua (Moderatzailea) principios, perspectivas y estrategias **Macarena Montes Franceschini** | Ikerlaria eta abokatua (Harvard Law School), UPF-Centre for Animal Ethics **(Zoom bidez parte hartuko du)** **Anna Mulà** | Abokatua, Igualdad Animal **María Eugenia Suárez-Alba Azanza.** | Abokatua, Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsua
18:30 - 18:45	Itxiera **Leire Morrás Aranoa** | UPV/EHU - Ikastaroaren zuzendaria

Zuzendaritza

Leire Morrás Aranoa

UPV/EHU

Leire Morrás Aranoa Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinako Zientzietan doktorea da. Filologia Klasikoan graduatu zen eta Mundu Klasikoko masterra egin zuen unibertsitate berean. Bere ikerketa arloak greziar filosofiaren historia eta animalien etika dira. 2023an bere tesia defendatu zuen, "La animalidad y el estatus de los animales en el tratado De abstinentia de Porfirio de Tiro", Ana Iriarte Goñi eta María José García Soler doktoreek zuzendutakoa. Gaur egun, greziar filologiako Irakasle Laguntzaile Doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Olatz Aranceta Reboredo

Olatz doktoregaia eta ikertzailea da Pompeu Fabra Unibertsitateko (UPF) Komunikazio Departamentuan, eta UNICA-CRITICC ikerketa-taldeko eta UPF-Centre for Animal Ethics-eko kidea. Haren ikerketa-eremuetak ondorengoak dira: animalia ikasketa kritikoak, interes-taldeak (lobbiak) eta animalien errepresentazioa komunikabideetan. Ingeles Ikasketetan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitateatik (UPV/EHU), eta Hedabidei, Boterei eta Aniztasunari buruzko Nazioarteko Ikasketak masterra (UPF). Olatz COMPASS (PID2020-118926RB-I00) proiektuaren kudeatzailea da, eta "Compassion In (S) Pain: How Interest Groups Contribute to the Perpetuation of Animal Captivity and Exhibition" izeneko doktorego-ikerketa burutzen ari da proiektu honen barruan.

Irakasleak

Claudia Alonso Recarte

Claudia Alonso-Recarte irakasle titularra da Valentziako Unibertsitateko Ingeles eta Alemaniar Filologia Sailean. Ingeles Filologian lizentziaduna (2006) eta Ingeles Filologian doktorea (2012) da Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta bi programen Sari Berezia lortu du. Bere ikerketa "Animal Studies" eta "Critical Animal Studies" izenekoen ingurukoa da, eta interes berezia du gizakiak ez diren animaliak literaturan eta zineman irudikatzeari lotutako inplikazio etikoetan. Literaturako eta ikus-entzunezko diskurtsoetan jasotako gizakien eta beste animalien arteko harreman motak aztertzea ere interesatzen zaio. CULIVIAN (GIUV2020-486) ikerketa-taldeko zuzendaria eta sortzailea da, eta "Maskulinitateen irudikapenak animalien defentsarako dokumentaletan ingelesez (2000-2021)" (Erreferentzia: CIGE/2021/100) ikerketa-proiektu autonomiko bateko ikertzaile nagusia. Gizakiak ez diren animalien literatura- eta kultura-azterketei buruz duen ikuspegiak, era berean, aukera ematen dio irudikapen horiek beste identitate-gai batzuekin dituzten elkarguneen gainean lan egiteko, hala nola genero-azterketekin edo medikuntzako humanitateekin.

Olatz Aranceta Reboredo

Olatz doktoregaia eta ikertzailea da Pompeu Fabra Unibertsitateko (UPF) Komunikazio Departamentuan, eta UNICA-CRITICC ikerketa-taldeko eta UPF-Centre for Animal Ethics-eko kidea. Haren ikerketa-eremuetak ondorengoak dira: animalia ikasketa kritikoak, interes-taldeak (lobbiak) eta animalien errepresentazioa komunikabideetan. Ingeles Ikasketetan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitateatik (UPV/EHU), eta Hedabidei, Boterei eta Aniztasunari buruzko Nazioarteko Ikasketak masterra (UPF). Olatz COMPASS (PID2020-118926RB-I00) proiektuaren kudeatzailea da, eta "Compassion In (S) Pain: How Interest Groups Contribute to the Perpetuation of Animal Captivity and Exhibition" izeneko doktorego-ikerketa burutzen ari da proiektu honen barruan.

Pilar Badía González

Gaztelania eta Literaturako irakaslea da eta Kazetaritzan lizentziatua. Hainbat komunikabidetan eta baita erakunde mailan ere, Aragoiako Gorteetan, kazetari lanetan aritu ondoren, 2008an irakaskuntza

publikora batu zen. 2003tik espezismoaren aurkako ekintzaile da, protestak, hitzaldiak eta ikerketak antolatzen eta parte hartzen. "Veganismoa sustatzen" izeneko kolektiboaren sortzailea izan zen eta animalien defentsarekin lotutako hainbat elkartekin kolaboratu du. 2011n, Aula Animal hezkuntza-proiektua sortu zuen, hezkuntza-sisteman beste animalien inguruko ikuspegi ezberdin bat ezagutarazteko asmoz. La voz de los animales liburuaren egilea da. Azken hamar urteotan, Aula Animalek irakasleen prestakuntza-ikastaroak antolatu ditu, animaliekiko errespetuan oinarritutako hezkuntzari buruzkoak, baita hitzaldi eta tailerrak ere ikastetxe eta institutuetan, Estatuko hainbat lekutan ez ezik, Latinoamerikan ere. Irakasle moduan egiten duen lanaren baitan, erakunde mailako animalien babeserako proiektu baten koordinatzailea da.

Irene Barañano

UPV/EHUko Gizarte Komunikazio programako doktoregaia da. Unibertsitate horretan Itzulpengintza eta Kazetaritza ikasketak eta Multimedia Komunikazio masterra egin ostean, Animalia eta Hedabide Ikasketa Kritikoen (Critical Animal & Media Studies) ikerketa eremuan aritzen da. Funtsean, hedabideek animalien askapenerako mugimendua zelan irudikatu duten ikertzen du, hedabideen analisiaren eta ahozko historiaren bitartez. Ildo horretatik, Experiencia Moderna (UPV/EHU) ikerketa-taldeko kidea ere bada. Horrez gain, Animalistak eta Piztiak kolektibo antiespezistetako talde antolatzaileetako kide da.

Naiara Berganzo-Besga

Naiara Berganzo-Besga Literatura Konparatuan eta Literatur Ikasketetan doktoratu aurreko ikertzailea da, REWEST (UPV/EHU) ikerketa taldeko kidea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Filologia eta Historia saileko ordezko irakaslea. Bertan ikasi zituen Filologia Hispanikoko Gradua (2014-2018), Literatura Konparatuko eta Literatur Ikasketetako Masterra (2018-2020) eta Irakasleen Prestakuntzako Masterra (2019-2022) Ingelesezko hizkuntza eta literaturarekiko zuen interesak Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egindako ikasketak Hezkuntza Urruneko Unibertsitate Nazionaleko (UNED) Ingelesezko Ikasketak graduko ikasketekin uztartzera bultzatu zion. Bere interes akademiko nagusien artean literatura hispanikoa eta angloamerikarra, genero ikasketak, ikasketa poskolonialak, ikasketa gotikoak, literatura fantastikoa, ekokritika eta ekofeminismoa nabarmentzen dira. Gaur egun, "An Ecofeminist Analytical and Comparative Review of the Landscapes of the Anglo-American Female Gothic Literary Tradition" doktore-tesia berrikusteko prozesuan dago.

Andoni Cossio Garrido

Andoni Cossio irakasle laguntzaile doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Ikertzaile kidea ere bada Centre for Fantasy and the Fantastic-en (University of Glasgow). Ingeles ertaineko William Shakespeare, C. S. Lewis eta, batez ere, J. R. R. Tolkienen lanei buruzko bere idatziak indexatutako hainbat aldizkaritan eta binaka berrikusitako saiakeren bildumetan argitaratu dira. Cossio, gaur egun, Nelson Goeringekin lankidetzan, Tolkienen bizitza akademikoari buruzko liburu-kapitulu bat idazten ari da hurrengo Oxford Handbook of J. R. R. Tolkien, Luke Sheltonek eta Dimitra Fimik editatua, halanola Tolkienen ingurumen-ikuspegiaren bilakaerari buruzko monografia bat. ORCID: 0000-0003-2745-5104, ehu.academia.edu/AndoniCossio.

Laura Fernández Aguilera

Laura Fernández ikerlari postdoctorala da Universitat de Barcelonan (UB). Komunikazioan doktorea da Pompeu Fabra Unibertsitatean (Bartzelona, 2021), Imágenes que liberan. Shock moral y comunicación visual estratégica en el activismo por la liberación animal. Aurretik, gizarte eta kultura antropologian graduatu zen (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, 2016), eta komunikabideei, botereari eta desberdintasunei buruzko nazioarteko ikasketetan masterra egin zuen (Pompeu Fabra Unibertsitatea, 2017). Laurak hainbat gairi buruzko ikerketa egiten du, ikuspegi kritikoei eta desberdintasun- eta zapalkuntza-sistemekiko interesari lehentasuna emanez. Bere lana animalien azterketa kritikoetan, komunikazio bisual estrategikoan, mugimendu sozialetan eta gorputz eta feminismoei buruzko ikerketetan oinarritu da. Hamar argitalpen akademiko baino gehiago idatzi ditu, baita Hacia mundos más animales liburua ere, Ochodoscuatro (Madril, 2018) eta Madreselva (Buenos Aires, 2019) argitaletxeek argitaratua. UPF-Centre for Animal Ethics eta Animalien Azterketa Kritikoen Europako Elkarteko kidea da (EACAS).

Frasco Fernández

Ingeleseko eta ELEko irakaslea. Tokiko proiektu antiespezistetan lagundu du Palestinan. Hitzaldietan eta tailerretan parte hartu du, irudia garbitzeko estrategiak nola sortzen diren eta nola funtzionatzen duten azaltzeko, veganwashing-aren eta pinkwashing-aren bidez. Gaur egun, animaltasunak ikuspegi antropozentrikotik nola jokatzen duen ikertzen ari da, giza taldeekiko diskriminazioak praktikan jartzeko

eta Palestinakoa bezalako genozidio bat justifikatzeko.



Amaya Fernández Menicucci

Facultad de letras, Profesora Agregada

2003 eta 2007 artean, Amaya Fernández-Menicuccik eskolak eman zituen Alicanteko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean, eta doktoretza ere lortu zuen Ingeles Ikasketetan; 2008 eta 2016 artean, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Letren Fakultatean irakatsi zuen, eta, 2016tik, ingelesezko literaturako eta zinemako irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. 20 urte baino gehiago daramatza Genero Ikasketetan ikerlari, eta azken urteotan esparru filosofiko posthumanista zinemagintzan eta zientzia fikziozko eta fantasiazko literaturan, ingelesez, post-generoa eta postgizatasuna irudikatzeko aplikazioan espezializatu da. Rewest Mendebaldeko generoan espezializatutako ikerketa-taldeko kide gisa, interes berezia du Mendebalde Urruneko mito estatubatuarren erabilera zientzia fikziozko egungo telesailetan aztertzeko.

Lamia Filali-Mouncef Lazkano

Euskal Herriko Unibertsitatea

Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua eta soziologiako eta kultur produkzioen analisiko masterduna. Hizkuntzen irakaskuntzan, euskararen biziberritzean eta hizkuntza aniztasunaren alorretan lanean ibili da. Egun doktorego aurreko ikertzailea da Euskal Herriko Unibertsitatean, Gizartea, Politika eta Kultura programan. Mugimendu ekologistaren kide da.

María González Lacabex

Animalex

Abokatua Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Ingurunearen Zuzenbideko Masterra. Animalia Zuzenbidea eta Gizartea Masterra. Garapen Iraunkorrean eta Tokiko Agenda 21ean aditua. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketan espezialista. Hainbat urtez aholkularitza pribatuaren eta administrazioaren sektorerako lan egin ondoren 2012an ANIMALEX bulegoa sortu zuen, eta bertatik aritzen da esklusiboki Animalien Eskubidean. Bizkaiako Legelarien Elkargoko Animalien Zuzenbideari buruzko Azterketa Taldea koordinatzen du. INTERCIDS elkarteko zuzendaritza-batzordeko kidea da. Animaliekin lotutako abokatutzako ariketa gai honi buruzko aholkularitzarekin bateratzen du, bereziki animalien babeserako legeria hobetzeko. Hainbat jardunaldi eta kongresutan parte hartu du, baita Legebiltzarreko agerraldiak legegintzako ekimenen berri emateko. Animalien Zuzenbideari buruzko hainbat argitalpen eta artikulu idatzi ditu gai honetan espezializatuak argitaletxe juridikoentzat.



Itxi Guerra

Ikertzaile independentea, Galiziako Cerdedo herrian bizi dena. 2018az geroztik, gaikuntzari eta anarkismoari buruzko hitzaldiak ematen ditu, eta, berriki, birbanaketa edo krisiak bezalako gaiak gehitzen ditu. Bi liburu ere idatzi ditu: Lucha contra el capacitismo. Anarquismo y capacitismo, Imperdible, Traspapeladxs eta Terra Sem Amosekin (portugesez) argitaratua, Lucha contra el capacitismo. Anarquismo, capacitismo y teoría queer, Tolomochx eta Ruptura y reparación de la máquina-rekin argitaratua. Escritos desde un cuerpo lisiado, Trincherak argitaratua. Eta Ana Amigorekin batera Kaotika editorialek argitaratutako Dolores Compartidos liburua argitaratu du. Duela gutxi, pare bat musika-proiektu atera ditu Rabelorekin batera, Jogoren abestiarekin, eta beste bat A Semente ikastetxearekin. Proiektu horiekin, besteak beste, lausenguari, lurraren defentsaren garrantziari eta samurtasunari heltzen die.

Irati Jiménez

Irati Jiménez-Pérez Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua da (UPV-EHU, 2014-2018), Ingeles Literatura eta Kultura Ikasketak eta bere Gizarte Proiekzioa masterreko ikasketak egin ditu (UNED, 2019-2022) eta Robotaren Ontologia: Posthumanismoa eta Transhumanismoa graduondoko programan parte hartu du (UNED, 2020-2021). Gaur egun, doktoregaia da Literatura Konparatuaren eta Literatura Ikasketen (UPV-EHU) programan, Animalien Ikasketa Kritikoen barruan kokatutako proiektu batekin. Bere tesiaren helburua literaturan gizakiak ez diren animalien antropomorfizazioaren bilakaeraren fenomenoa aztertzea da, idazketa sortzailearen esparruan esperimentatzeaz gain, gizakiaz haraindiko beste izakera batzuk adieraz ditzaketen narrazio-forma berriak aurkitzeko helburuarekin. Gainera, bere jarduera akademikoa dibulgazioarekin konbinatzen du, literatur tailerren eta idazketa sortzailearen bidez.

Macarena Montes Franceschini

Macarena Montes Franceschini zuzenbidean doktorea da Pompeu Fabra Unibertsitatean. Ikertzaile bisitaria izan da Heidelberg-eko Zuzenbide Publiko Konparatuaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen Max Planck Institutuan (2021) eta Brooks McCormick Jr-ko Rights Research Fellow bezala Animal Law & Policy Program Harvardeko Zuzenbide Fakultatean (2021), non gaur egun Rights of Nature Fellow den (2023ko otsaila –). Era berean, UPF-Frantziako Etika Zentroaren direktorioko kidea da, Law, Ethics and Philosophy (LEAP) aldizkariaren editorea, Txileko Animalien Zuzenbideko Aldizkariaren Batzorde Editorialeko kidea eta Espainiako Gran Simio Proiektuaren diruzaina. Gizakiak ez diren animalien nortasunari, animalien eskubideei eta animalien zuzenbideari buruzko hainbat artikulu idatzi ditu, eta "Derecho Animal en Chile" izeneko liburu bat.

Leire Morrás Aranoa

UPV/EHU

Leire Morrás Aranoa Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinako Zientzietan doktorea da. Filologia Klasikoan graduatu zen eta Mundu Klasikoko masterra egin zuen unibertsitate berean. Bere ikerketa arloak greziar filosofiaren historia eta animalien etika dira. 2023an bere tesia defendatu zuen, "La animalidad y el estatus de los animales en el tratado De abstinentia de Porfirio de Tiro", Ana Iriarte Goñi eta María José García Soler doktoreek zuzendutakoa. Gaur egun, greziar filologiako Irakasle Laguntzaile Doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Anna Mulà

Anna Mulà Ingurumen Zuzenbidean eta Animalien Zuzenbidean espezializatutako abokatua da, eta bere karreraren zati handi bat animalien ongizatea eta defentsa hobetu eta bermatuko duten arau juridikoen onarpena eta ezarpena sustatzen eman du. Mehatxatutako espezieen kudeaketari buruzko masterra du CITES nazioartean. Bere lanak aktibismoa, aholkularitza, ikerketa eta legeen sorrera uztartzen ditu gizartearen prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren aldeko konpromiso irmoarekin. Comisión de Derechos de los Animales del Ilustre Colegio de la Abogacía de Barcelona-ko kidea (2007-2022) eta Abokatutzaren elkargo ugaritan animalien zuzenbideko batzordeak sortzearen bultzatzailea. Gaur egun,

Igualdad Animal Fundazioan Legegintza Eragineko Gerente postua betetzen du. Bertan, abeltzaintzako ustiategietan eta hiltegietan giza kontsumorako animalien ongizatea bultzatuko duen lege-aldaketa bultzatzeko lan egiten du. Senior Fellowship da Animali Etikako Zentroan (UPF).

Ane Belen Ruiz Lejarcegui

Ane B. Ruiz-Lejarcegui doktoregaia eta ikertzailea da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak doktoretza programan, baita REWEST: Research in Western American Literature and Culture (IT-1565-22) ikerketa taldeko kide ere. 2023tik, AEBko zientzia fikzio garaikidean dauden identitate posthumanoei buruzko tesia egiten ari da, Eusko Jaurlaritzaren lau urteko doktoretza-aurreko laguntzaren babesean. Bere ikerketa-interesak posthumanismo kritikoa, transhumanismoa, animalia-esperimentazioa, literatur ikasketa kognitiboak eta diskurtso analisi kritikoak hartzen ditu barne.

María Eugenia Suárez-Alba Azanza.

Gasteizen jaio zen 1966ko abenduan. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (Bilbo), eta 35 urtez Epaitegietan Zuzenbidearen jardun profesionalean aritu da etengabe, azken 25 urteetan, sortu zuen bulegotik: Suárez-Alba Abogados. Zuzenbide zibilean (bankuak, familia, oinordetzak...), merkataritza-zuzenbidean (enpresak) eta animalien zuzenbidean espezializatua, beste gai juridiko batzuen artean. APASOS VITORIA Animaliak Babesteko Elkarteko abokatua da 2014tik, eta tratu txarrak ematen dituztenen aurkako herri-akusazioa egiten du epaiketa penaletan. Arabako Abokatutzaren Elkargoko dekanorde ohia, Gasteizko eta Arabako Aurrezki Kutxako hirugarren presidenteorde ohia, Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialeko Arbitraje Zerbitzuko arbitroa, Zuzenbide Kooperatiboko Nazioarteko Elkarteko kidea. Hizlari izan da hitzaldi eta ikastaroetan, eta hainbat artikulu juridiko argitaratu ditu.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-30 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa